



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-06-13

VIII. URTEA 2.026. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Segundo Montesetik gurera

AIZTONDO El Salvadorreko Segundo Montes komunitateko hiru gazte etorri dira Euskal Herrira

SENIDETZEA Asteasu, Aduna, Villabona eta Zizurkil herriak daude senidetuta komunitatearekin <6-7



Sanchez eta Ramos Che Guevara gazte elkarteko kideak eta Hernandez Udal ordezkaria Zizurkilen. E.MAIZ



Jende ugari bildu zen atzo Leitzako plazan sagardoa dastatzeko. E.MAIZ

Nafarroako eta Gipuzkoako zukuak II. Sagardo Egunean

LEITZA Atzo bukatu zuten Kultur Aroa sagardoari eskainitako jaiarekin <5

**Giza eskubideak
errespetatu
orain !**

Facebook-en:
Plataforma de Guipúzcoa
con Palestina

Umeari (III)



» Uzturretik

Iratxe Etxebeste

Ikastolatik deitu zidaten lehengoan. Nahia Estankonaren ama

zara? Nik, segidan, baietz. Gero, telefonoa eskegitakoan, pentsatu nuen arraroa izan zela galdera egitekoko modua. Halakoren alaba izatetik halakoren ama izatera pasatu nintzela bat-batean. Alegia, estreinakoz nintzela norbaiten ama.

Maiatzaren 2an jaio zen gure alaba. Goiz euritsu batean ikusi nuen lehen aldiz bere aurpegia. Zabal-zabalik zituen begiak. Begi handi horiek. Besoen artean hartu

nuen, eta tentuz begiratu nizkion more-moreak zituen azazkal txikiak. Ez zuen apenas negar egiten, lasai zegoen mundu berrian.

Ze polita den, esan zuen emaginak ateratzean, ze polita den erin-zainak, eta gogoratzen dut harrotasun handi batek inbaditu zidala bihotza. Erditze gelakoak amaituta, dilataziokoan egoten utzi ziguten hiruroi, aitari, amari eta umeari, eta aurreko bost orduak bertan

eman genituen arren, arrotza egin zitzaidan dena. Ez nintzen jabetzen non nengoen, ze gela zen hura. Ingurukoei deitzeko gogoa neukan. Denei azaldu nahi nien nire balentria. Denei erakutsi gure ume ederra. Momentu bereziak izan ziren, batez ere amuma eta amona, biak etorri zitzaizkidanean bisitan. Lau belaunaldi bilduta ospitaleko gela batean. Bada, harrezkero, asko izan dira une goxo-

ak, maitea. Gauero-gauero oheratzen zara aitaxo eta bion erdian, eta atsedetik hartzeko aukera handirik ematen ez diguzun arren, pozarregabilza. Noiz edo noiz hunkitu egiten gara zuri begiratzean, eta zure amasa sentitzen dudanean nirearen kontra, zure azala nirean, pentsatzen dut orain arte 'umeari' idatzi diodala, baina zu ere hasi zarela 'amari' idazten, bizitzako kapitulu ederrak.

G Gutunak

Eskola Txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik!

Haur eta gazteen hezkuntzaren garrantziaz aspaldi ohartu zen gizakia. Hesiodok, duela 28 mende inguru bizi izan zen poeta greziarrak, hauxe esango zuen: «hezkuntzak izatera hel daitekeena izaten erakusten dio pertsonari». Gaur egun, 2.800 urte geroago, giza eskubide ukaezinetako bat dela aldarrikatzen da.

Hezkuntza Sailaren aurkezpen orrian 'herrialde baten hezkuntza bere gizartea definitzen' duela idazten digu Sailburuak.

Gipuzkoa landa eremua eta hiriguneak konbinatzen dituen lur zatia denez erraz aurkituko ditugu bertan zenbait herri eta auzo txiki. Leku hauetan hirietako bizi-modua arrotza da eta hirietan ikusteko zailak diren hainbat fenomeno gertatzen dira: ez da harritzekoa adin desberdineko jendea batera ikustea, herritarren artean hirian ez dagoen harremana dago...

Horrez gain, gero eta hiritar gehiago etorri dira herri txikietara bizimodu lasaiago baten bila eta nahasketa interesgarria eman da. Argi dago, beraz, hirietako eta he-

rietako errealitatea ez dela berdina eta eskolak ere ezin direla modu berean planteatu.

Gaur egungo politika gehiena hirietara bideratuta dagoenez herri txikiak etengabeko borrokan dihardute entzun ditzaten.

Herriek ez dute interes berezirik 'garapen' motorra diren enpresentzat eta ahaztuak gelditzen dira. Egoera honetan, Eskola Txikiak amasa ematen diete herriari eta baita herritarrei ere. Hainbat ekintza bultzatzen dira herriari begira: antzerkiak, Santa Ageda eguna, festak...

Honek ekartzen duen bizipoza ez da agertuko inongo estatistiketan, hiritarrek ez dute nabaritu, baina herriak pozik baloratuko du eskolaren ahalegina. Hirira etorritzen diren familientzat, berriz, integrazteko aukera bikaina eskaintzen du, izan ere, eskolaren bidez gurasoak eta haurrak bertakoekin jartzen dira harremanetan.

Eskola hauen funtzionamenduak ere ekartzen dio onurarik ikasleari. Ume kopurua urria izaten da askotan eta hainbat mailatako ikasleak gela berean egon ohi dira.

Hau, ordea, kaltegarri izatetik urrun dago. Bakoitzak bere mailari dagokion materia ikastearekin

batera, ikaskideei lagundu edo laguntza eska diezaiokete.

Honek, alde batetik, jakintza-gaiei trukea ekartzen du eta, bestetik, elkartasuna bultzatu ere bai. Baina hau ere ez da estatistiketan aterako, noski.

Agintariak ikusiko dutena ikasle kopuru txikia dagoela da; hemendik, zenbaitetan, errentagarria ez dela ondorioztatuz. Aipa-

tzekoa da eskola hauek euskarari egiten dioten ekarpena ere. Ikaslea herrietako giro euskaldunean hezten da eta ez da behartuta sentituko euskara erabiltzean.

Herrien poz iturrietako bat izateaz gain herrien arteko lankidetzaz bultzatzen dute. Ikasleak beste eskoletako haurrekin harremanetan jartzen dira, antzerkiak egiten dituzte inguruko herrietan eta es-

kolen arteko irteerak egiten dituzte. Hau guztia borobiltzeko, urtean behin Eskola Txikien Festa egiten da. Aurtun ere jai koloretsua antolatuko dute Altzon.

Herri eta auzo txikiak bizipoza diren Eskola Txikien defentsan ikusiko dugu elkar bertan!

Haritz Azurmendi Arrue.

Albizturgo herri eskolako ikasle ohia eta EHUko Filosofia ikaslea.



Gaurko jai eguna baino lehen, festa girotzeko, Altzoko Handiaren antzezlanaren erdian zuten herrian. MIKEL OLANO

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORTZETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

G Gutunak

Zumardi Handiaren inguruko zenbait argibide

Zumardi Handiaren bananondoen ebakitzeak sortu duen eztabaida ikusita, eskutitz hau idaztea erabaki dut, zenbait gai argitu asmoz.

Lehenik eta behin atzera egingo dut, oraina ulertu ahal izateko iraganean Zumardi Handia zer izan den jakin behar baita.

Zumardi Handia 1618. urtean sortu zen. Tolosa harriz inguraturata zegoen eta herritarrek guene irekietara ateratzeko zuten beharrik bulzatuta kanpoko parke bat egin zen.

Parkea egin ahal izateko emandako lehen urratsa baso izendapena zuten herriko lurretako intxaurrondoak moztea izan zen. Bitxia da ikustea, lehen jarduerari hori izan zela, zuhaitzak eraitea, alegia. Bertan, geroago, 1618. eta 1622. urtean artean, 50 makal, lizar eta zumar egon ziren, lerrokaturik eta funtzio estetiko garbia beteaz.

Ditugun datuak ez dira nahi beste eta beraz, bere historian hutsu-neak ere badira. 1618. urteko lehen landaketa haietatik bigarregoiara (ditugun datuen arabera) 190 urte pasa ziren, 1808an izan baitziren. Nire ustez tarteko urte haietan beste berrikuntzaren bat ere egongo zen. Independentzia Gerran Frantziako Armadak Zumardi Handia eta Zumardi Txikia aukeratu zituen kanpatzeko, zuhaitzak ugari kaltetuz.

1808. eta 1814. urtean artean kaltetutako zuhaitzak birlandatu zituzten (ez dakigu zein espezie birlandatu zituzten).

1826. urtean Zumardi Handia handitu zuten Tolosak Ibarrekin duen mugaraino eta 20 urte geroago Elduaien edo Zelai errekararen gaineko euste-horma egin zuten.

1834. urtean lur gehiago erosi zituzten eta 1845. urtean erreka ertereraino zabaldu zuten zuhaitzia. Urtebete geroago errekararen horma egin zuten eta Nafarroarako irteera bidea zabaldu zuten. Belazea zabaldu zuen 17.800 metro koadroetara iritsiz. 1922. urtean Zumardi Handiko ibiltokiak ere berri-tu zituzten.

1940. urtean haizete handiengatik zenbait zuhaitz kaltetu ziren eta ondorioz, zuhaitzi guztia botatzea erabaki zuten. Lehen fasean 179 zuhaitz botazituzten eta urte bukararako beste 191 zuhaitz ere bota zituzten. Guztira 370 zuhaitz, hortaz.

1942. urtean berri-tu zen guztiz Zumardi Handiaren zuhaitzia, baita bertako diseinuare, 5 ilara izate-tik 4 izatera pasa zelarik. Gure zaharrek gogoratuko duten bezala, moztutako zuhaitzak indigaitai-ondoak ziren. Ez dakigu espezie hau noiz sartu zen, baina zuhaitz li-break ziren, kimaterik gabekoak. Hau badiot, landatutako zuhaitzak naturalki haztea nahi dugulako da, lehen bezala, esku-harterik gabe, alegia.

Hau guztia Kutxak argitaratuta-koko Jose Mari Tuduri Esnalen liburu batean irakurri daiteke.

Zumardi Handiaren argazki-baten argazki oinean Jose Mari Tudurdi Esnalek bai Zumardi Handia eta baita Zumardi Txikiko zuhaitzia ere askotan berri-tu dutela idatzi zuten.

Zertzelada historiko hauekin helarazi nahi dudana da bide-zuhaitziak zein herriko parkeak garai bakoitzeko garapenaren zati direla. Aldaketak jasaten ditu; zahartzeagatik, kalte desberdinengatik, diseinuaren eguneratzeengatik, obra desberdinengatik, zabal-kuntza ezberdinengatik...

Orain bananondoen ebakitzearen arrazoiak agertuko dit.

42ko diseinuak lau ilara zituen eta 68 urte zituen. Ilaretako batek, errekatik gertuen zegoena, pasa den neguan kendu zuten errekararen bideratze lanengatik eta kolektore-aren hodiengatik.

Udalak zuhaitziaren egoeraren,

balio botanikoaren eta funtzio este-tikoaren inguruko azterketa tekni-koa idazteko eskatu zituen. Ondorengoletoan agertuko dut azterketa.

Lehen ilara kentzean gainontze-ko zuhaitzak babesgabe geratu zi-zen, haizearen eraginpean, hortaz. Zuhaitzak masa bateratu bat beza-la hazi ziren, 5 metrotako distan-tziarekin bakarrik, oso gutxi dena libreaki hazten uzteko.

Bestalde, iparraldeko hegalean egonda, argiaren bilaketan, adaburuak gehiegi luzatu zitzaizkien.

Landatzearen tarte txikia zuhaitzak jatorrian jasandako tratamenduaren ondorio da. Landaketa zahaitzitik muinonerakoa edo *katu buruarena* zen, elkar uler-tzeko, San Frantzisko gaur egun den bezalako, hau da, egitura arti-fizialekoak.

Urtero zuhaitzak kimatuta edu-kitzeko ohitura orain urte batzuk utzi zen. Horretarako aldetako adarrak motozerrarekin moztu zi-

ren, horrela zauri garrantzitsuak sortuz eta ondoren, libreaki hazi ahal izateko bi gida nagusi aukera-tuz. Erabaki hau, badakit, Tolosako zuhaitziak eta zonalde berdeak zaintzeko pertsonal gutxi zegoela-ko hartu zen, izan ere, herri guztira-ko bi pertsona bakarrik zeuden.

Bere garaian erabaki hau lana kentzeko balio izan zuen, baina ge-rorora oker handi bat izan zela frogatu da. Urteekin lehenagoko guru-tzeetan hasten den eta oinarrietara jaitsi den ustelkeria ikusi dugu. Bar-renean metro bat baino gehiagoko ustelkeria ere izan zen, estrukturen arazo handiak sortzen dituen a egonkortasun arazoak sortuz eta arriskua handituz.

Arbolazaintza modernoaren sortzaileak, Alex Shigonek, herrie-tako zuhaitzietan lan egiten dugun lorezaintzaren profesionalak arau bezala hartu dugun ideia utzi zuen: «Zuhaitzia polita, osasuntsua eta segurua izan behar du». Zumardi Handiko zuhaitziak ez zituen

ezaugarri hauek betetzen; ez ziren politikak, ez zeuden osasuntsu eta garrantzitsuena, ez ziren seguruak ere.

Zumardi Handia berritzea eta zuhaitzi hori mantentzea arduragabekeria izango litzateke. Tolosa-rreri ziurtatzen diet zuhaitz batek merezi duenean ahal dugun guztia egiten dugula mantentzeko.

Albo batera geratu den gai bat ere nabarmendu nahiko nuke. Zumardiko bananondoak botatzean Zumardi Handiko zati den mendo-itzen basoak protagonismoa irabazi duela. 1940. urtean ere mendo-itzeko zuhaitzak kendu zi-tuzten. Bertan planta naturala du-ten eta bertakoak diren zuhaitzak daude. Pago, haritz, astigar, urki... benetan politik ditugu.

Zuhaitzak maite ditut eta beraz, ekidin ezin zitekeen jarduerari honen inguruan izandako sentisibili-tatea eskertu nahi diet tolosarrei. Bulego honetan ohikoena «poli-tik, osasuntsuak eta seguruak» di-ren, baina gure bizilagunei era-gozpenak sortzen dizkieten zuhaitzak botatzeko eskaerak dira. Ez da izan erabaki erraza ezta herrikoia ere, baina bai ego-kiena.

Berrikuntza proiektu honek etorkizunean izango duen onura ulertuko delakoan nago. Egitas-moan, gainera, Tolosako ikasleek hartu dute parte Agenda 21 proiektuaren baitan eginiko ekar-penekin, besteren artean erreka-rekiko irisgarritasuna hobetzea eta zonalde berde bat sortzea pro-posatu dutelarik.

1942. urtean Zumardi Handia-ren diseinua aldatzea erabaki zu-ten eta 2010. urtean, baldintzak al-datu direla eta, berrikuntzetara egokitutako aldaketa egitea era-baki da.

Ilaren kopurua gutxitu da eguz-kia hobeto sartzeko eta erdiko be-lardi baten alde ere egin da. Lan-datutako zuhaitzari landatze ere-mua handitu diogu, oraingoak, zuhaitz politik izango dira, itxura dotorekoak, erdiko gida bat izan-go dute, modu naturalean haziko den adaburuekin eta esku-harterik gabekoa, hasierako landakete-tan bezala.

Oraindik ere zuhaitz gehiago landatu behar ditugu, lanen bigar-ren fase batean egingo dugularik.

Idatzi honekin egindakoa uler-tuko dutelakoan, tolosarrei agur bero bat bidaltzen diet.

Jose Mari Arsuaga. Tolosako parke eta lorategien mantentze eta zaintze lanen arduraduna den Goroldi enpresako Lorezaintza Teknikaria.



Zumardi Handiaren 1943. urteko argazkia. JOSE MARI TUDURI ESNAL



Gaur egun itxura hau du Zumardi Handiak. I. TERRADILLOS

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliazko banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zainzaileak, igeliteroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuko langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Pisua.** Ikasleentzat pisua aloka-tzen da Gasteizen. 945-30 01 30.



150 lagun izan ziren atzo Coupage bazkarian Zerkausiaren beheko solairuan. I. TERRADILLOS

Gastronomia eta artearen uztarketak «harrera ona»

Tolosa » Illargi Coupage ekimeneko otorduek izan duten harrerarekin «oso gustura» azaldu dira antolatzaileak.

IÑIGO TERRADILLOS

Aste osoan zehar dastatzen eta osasunaren inguruan ikasteko aukera izan eta gero, Illargi Coupage ekimenaren plater nagusia probatzeko unea iritsi da asteburuarekin batera. Izan ere, ostegunean otordu bereziak zerbitzatzen hasi ziren, «harrera onarekin», gainera.

Ostegun gauean Zerkausiko erdiko solairuan Gorrotxategi konfiteri etxeak prestatutako afari gozorekin ekin zieten otorduei. Ostiralean turkiar afaria izan zen Sukru Karakus tolosar artista eta Frontonjatxeko Roberto Ruizen eskutik.

Atzokoan, ekimenari izena ematen dion bazkaria dastatu ahal izan zen, eta izenak dioen bezala, nahasketa modukoa dastatu ahal izan zuten eskualdeko hainbat sukaldariren eskutik. Eta afarirako, berriz, *Ezer ez da dirudiena* eskaini zuten Donostiako Mirador de Uliaren eskutik. Gaurkoan, herriko erretegiatiko sukaldariak prestatutako munduko haragiak dastatu ahal dira.

Illargi Delicatessen izan da ekimenaren antolatzailea, eta bertako Mireia Carceller «gustura» azaldu da ekimenak izan duen harrerarekin: «Aurreikusitako kopuruetara iritsi gara, orain arte beteta izan baititugu otorduak, beraz, pozik gaude; hori bai, lan handia egiten ari gara».

Otorduez gain, ordea, Illargi



Zerkausiko goiko solairuan pintxoak eta ardoak dastatu daitezke. I. T.



Ur-motoek ikusmin handia sortu zuten Oria ibaian. I. T.

Coupage ekimenak badu zer eskaini, «gastronomia eta artearen nolabaiteko uztartzea baita». Hori Zerkausiaren goiko solairuan nabari daiteke. Bertan bi gune daude egokiturik; batean pintxoak eta ardoak dastatu ahal dira eta bestean lasai egoteko aukera dago, kafea eta kopa bereziak hartuaz, musika entzutearekin batera. Ezin esan eguraldiak asko lagundu duenik

gune honetara jendea erakartzen, ostiralean ireki zutenetik lainoak eta euria present izan baitira. Bestalde, artearekin jarraituz, otorduguneean, hau da, beheko solairuan, erakusketen gunea ere jarri dute.

Proposamen berezia eta aitzindaria izan dugu aste honetan, ohikoa ez dena probatu eta ikustea posible egin duena.



Udalbiltzako akusatuei babes

POLITIKA » Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, elkarretaratzeak egin zituzten atzo eskualdean Udalbiltza auziko 22 akusatuei elkartasuna adierazi eta auzia bertan behe ra uztea eskatzeko. Euskal Herrian 1.000 lagun baino gehiago bildu ziren. Gurean Anoeta, Tolosa, Zizurkil eta Leitzaan egin zituzten elkarretaratzeak esaterako. I. T./HITZA



Protagonista izan dira egun batez

TOLOSA » Baleta eta dantza garaikideko 150 ikasle inguru taula gainean ikusteko aukera izan zen atzo Leidorren. Gaztetxoek egun handia zuten, izan ere, ikasturtean zehar ikasitakoa erakustea egokitu zitzairen. Emanaldi polita izan zen ikusleentzat eta esperientzia berezia dantzarentzat. I. T.

'Naparra'-ren omenezko ekitaldia, gaur Lizartzan

ERREDAKZIOA

30 urte betetzen dira gaur Jose Migel Etxeberria Alvarez *Naparra* desagertu zenetik. Hori dela eta, bere desagertzea gogoratzeko 12:00etan hasita ekitaldia egingo dute gaur Lizartzan. Bertako fami-

liaren Igarola baserrian dagoen monolitoaren aurrean egingo dute ekitaldia.

1980ko ekainaren 11n, 22 urterekin, desagertu zen. Batallon Vasco-Español taldeak bahiketa eta hilketak bere gain hartu zituen.

Euria izan zen protagonista atzoko azoka egunean

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna euritsu suertatu zen goiz osoan zehar. Hori zela eta, aurreneko ordutan ez zen jende askorik ikusi postuetan, baina pixkanaka, goiza aurrera zihola, giroa berotzen hasi zen, eta eguerdirako ez ziren gutxi izan postuetatik pasa zirenak.

Eskaintza zabala izan genuen, eta animazio gehiena perretxiko postuetan ikusi genuen. Hantxe ziren zizak, onddoak eta zizahoriak aukeran, eta hauekin batera gibelurdirin bakar batzuk ere ikusi ahal izan genituen.

Ilarrak nagusi, berriz ere

Barazkien artean ilarrak, babak, zainzuriak, patata berriak, azalareak eta erremolatxak izan ziren nagusi besteen artean.

Gerezia izan zen atzo fruten artean gehien eskatutakoa eta saldutakoa. Produktu arrakastatsua izan zela esan dezakegu, hortaz.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Alegria	1,50	2,00
Zainzuria	2,80	
Salbia	1,00	1,20

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak

Onddoak	30,00	-
Gibelurdina	30,00	-
Ziza horia	10,00	-

Fruta

Kiwiak	3,50	-
Urra	2,00	3,00
Errezil Sagarra	2,00	4,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak (sorta)

Ziazerba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Porrua	1,50	3,00

Barazkiak (kiloa)

Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	3,25	4,00
Porruak	1,00	4,00
Ilarrak	10,00	12,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	4,00

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Fruta

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Barazkiak (Kilo)

Kalabaza	1,60	3,04
Baratzuria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Txitxirioak	2,40	-



Giza katea aldaketa sozialerako

TOLOSA • Aldaketa soziala bultzatzeko sortutako Tolosaldeko Herria Abian plataformak giza katea egin zuen herenegun INEMeko bulegoetatik hasi eta Trianguloa plazaraino. Ekitaldi honekin gizarte ereduaren aldaketa beharra aldarrikatu nahi izan zuten. Plataformak bi abiapuntu ditu: eredu sozioekonomikoa aldatzea eta aldatzea horiek bultzatzeko Euskal Herria esparru eta subjektu garrantzitsua izan behar duela aldarrikatzea. Era berean, «eskualdean ere kapitalismo neoliberalaren ondorioak nabariak» direla aipatu zuten langabetu kopurua nabarmen igo dela azpimarratuz. A. MAIZ

Leitza » Kultur Aroari amaiera eman zioten. Gipuzkoako eta Nafarroako 18 sagardo dastatzeko aukera izan zuten bertaratuek.

Zukua ederki atera diote II. Sagardo Egunari

Txotx egiteko aukera zabala

Antolatzaileek, hemezortzi sagardogile ezberdinen sagardoak elkartu zituzten herriko plazan. Hiru euroren truke, edalontzia eta zortzi sagardo ezberdin dastatzeko txartelak eskaintzen zituzten.

Bost Nafarroako sagardotegiak izan ziren: Martitxonea, Larraldea, Behetxoneko Borda, Lindurren Borda eta Toki Alai. Gainontzeko hamahiru sagardotegiak berriz gipuzkoarrak: Petritegi, Lizeaga, Arratzain, Egi-Luze, Olaizola, Barkaitzegi, Larre-Gain, Ola, Añota, Zaldibe, Gartziategi, Zabala eta Isastegi.

Eguraldiak ziurtasun handirik eman ez arren, jendeak ez zuen zalantzarik izan herriko plazara inguratuzko. Eta ziur, atzokoan, plazako festak 21:00ak aldera ateak itxi arren, asko eta askorentzat gaua luzea izan zela.



18 sagardo desberdin dastatzeko aukera izan zuten atzokoan. E. MAIZ



Herriko tabernariak prestatutako pintxoak ere egon ziren plazan. E. MAIZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

SEGUNDO MONTES



Sanchez eta Ramos Che Guevara gazte elkarteko kideek eta Hernandez udal ordezkariak Zizurkilgo Andia etxean egin dute egonaldia. E. MAIZ

Aiztongo» Asteasu, Aduna, Villabona eta Zizurkil, Salbadorreko Segundo Montes Komunitatearekin senidetuta daude.

ENERITZ MAIZ

Aiztongo bailarako Asteasu, Aduna, Villabona eta Zizurkil herriak, El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin senidetuta daude.

Pasa den Aste Santuan hemengo ordezkariak El Salvadorrera joan ziren bertako egoera ikusi eta laguntzen dituzten proiektuak nola doazen begiratzera, eta bide batez, maiatzeko II. Senidetze Egunean parte hartzeragobidatu

zituzten. Udal ordezkari bat eta Che Guevara gazte elkarteko bi kide etorri dira, azkenean.

Senidetuta egotearen oinarrietako bat, Euskal Fondoaren bidez, hemendik herriak aurrera ateratzeko laguntzak bideratzea da eta alor ugari hartzen dira kontutan: etxebizitza, hezkuntza, nekazaritza, ura... Laguntza solidarioa eta ekonomikoa jasotzen dute, hortaz.

Izan ere, ezerezetik hasi behar izan zuten herria eraikitzen eta oi-

narrizko beharrak asetzeko laguntza behar dute.

Segundo Montes duela 20 urte sortu zuten eta asko hazi da. Gaur egun, jada ur edangarria eta argiteria dituzte. Irisgarritasunean ere asko hobetu dute. Ere mu ezberdinetan asko aurreratu badute ere, kezken artean dute, hala ere, azpiegitura guztiei nola eutsi. Orain alor produktiboari begira jarrita daude, hau da, ekoizpena bultzatu eta azpiegiturak kudeatu nahi dituzte.

Herrialdearen biziraupena

Gerra ostean, herria eraikitzen hasi ahal izateko, nazioarteko laguntza asko jaso zuen lurraldeak.

Demokrazian bizi dira eta ondorioz, hauteskundeak dituzte eta jendeak parte hartzen du. Lurraldea, hala ere, *remesa* edota bidalketen ekonomiatik bizi da.

Indarkeria handia dago eta hiri garrantzitsuenetan oso zabaldua dago, gainera. Zorionez Segundo Montes Komunitatean ia ez dago indarkeriarik. Nekazaritza eremuan kokatua dago eta Euskal Herria edo Kataluniatik laguntza handia jaso izan dutela azpimarratzen dute. Seguritatea nagusitu da bertan eta oinarritzko zerbitzuak badituzte. Ia familia guztiak etxebizitza duina daukate; bloke eta zementuaz eginak. Gaur egun, asko hobetu dutela sentitzen dute. Ne-

EL SALVADORREKO SEGUNDO MONTES KOMUNITATEA

Segundo Montes Komunitatea El Salvadorrek bizitu zuen azkenengo iraultza herrikoiarekin sortu zen 1980. urtean.

Morazan izan zen iraultzaren gune aktibo eta garrantzitsuenetakoa; bertan gerrilaren buruzagiak eta *Radio Venceremos*-en emisora kokatu ziren. Bi arrazoi hauengatik militarren eraso garrantzitsuak jasan zituen eta *suntsituriko* lurralde bat sortu zen. Egoera honen aurrean, eta orduko hilketen ondorioz, bertakoak Honduraserara ihes egin behar izan zuten. Hondurasen errefuxiatu kanpaleku handiak sortu ziren, hauen artean dagoelarik 9.000 pertsona bildu zituen Colomoncaguako kanpalekua. 1990ean, Bake Hitzarmena sinatu zenean, Colomoncaguan bizitu zen jende gehiena Morazanera itzuli zen.

Mendi ingurura bueltatu zen jende gehiena segurtasun bila eta errefuxiatu kanpalekuan hasi zituzten proiektuak jarraitzeko.

kazaritza nagusi den lur horietan, ekonomia asko baldintzatzen du artoaren ekoizpenak. Izan ere, sei hilabete euripean pasatzen dituzte eta beste sei hilabeteak, aldis, lehorrak dira. Tenperatura 35 gradu- ren bueltan ibiltzen da.

Erakunde-antolaketa

Alde batetik, Estatuak dago eta Udalak, bestetik. Estatuak Udal bakoitzari dagokion dirua ematen dio. Hauteskundeak egiten dituzte eta irabazten duenak Udal guztia hartzen du, ez dago oposizioarik.

Udalek ezin dute zergarik kobratu, ez bada eskaintzen duten zerbitzuren batengatik. Estatuak inbertsioetarako hileroko diru kopuru bat ematen die, baina ez du askorako ematen. Hamahiru eskola dituzte, eta horietatik bi bakarrik eraiki dira Estatuako Fondoarekin. Beste hamaika eskolak Aiztondoko Udalek ematen dituzten bezalako laguntzekin egin ahal izan dira. Hezkuntzan ere asko aurreratu dute eta azpiegitura onak dituzte; lau urtetik hasi eta batxilergora bitarte haur guztiak eskolara joateko aukera dute.

Gazteak ere elkarlanean aritzen dira. Auzo guztietan gazteen elkarteak dituzte eta egituratuta daude. Batzorde koordinatzailea zein batzorde zabala dituzte eta gazte asko elkartzen dira. Jardueraz ezberdinekin elikatzen dute elkarteak eta egunetik egunera handiagoa egin nahi dute.

Tolosalde, Gipuzkoa eta orohar, Euskal Herria ezagutzera etorri dira. Hemendik alor ezberdinetako gauzak ikasi eta El Salvadorrera eraman nahi dituzte.

«Pertsona bereziak bezala sentiarazi gaituzte»

Gizartea » Hemengoaz eta hangoaz hitz egin dute. Ikusi eta ikasitakoak aurrera egiteko asko balioko die.

E. MAIZ

El Salvadoroko Carlos Alberto Hernandez udal ordezkariak eta Basilia Claribel Ramos eta Santos Eliseo Sanchez Che Guevara gazte elkarteak kideak izan dira gurean azken bi asteetan eta bihar itzuliko dira Segundo Montes komunitatera. Bertako lagunek, Euskal Herrian zehar batera eta bestera ibili dituzte, bazterrak ikusiz. Bilbo, Donostia, Orio edota Faltzes bezalako herri eta hiriak ezagutu dituzte, kontakatu digute, etxerako buelta egin baino lehen egindako elkarrizketan.

II. Senidetze Eguna

Maiatzaren 29an Adunan ospatu zuten II. Senidetze Eguna eta nola ez, bertan izan ziren hiru ordezkariak. Lau Udalek harrera instituzionala egin zieten eta egun osoko festa izan zuten. Carlos Alberto Hernandezek «egun polita» izan zela dio. «Benetan pertsona bereziak bezala sentiarazi gintuzten», gaineratu du. Harrera herrikoia egin zieten eta baita agurra dantzatu ere. «Azaldu digutenez jende bereziari dantzatzeko zaio», diote irri artean. Eguna sagardotegian bukatu zuten eta «asko gustatu zitzaion» bertako giroa.

Senidetutako eskoletan

Behin harrera eguna pasa ostean, Segundo Monteseko eskolekin senidetuta dauden eskolak bisitatu zituzten. Basilia Claribel Ramosek azaldu duenez, «Pedro Mari Otano Adunako Herri Eskola edota Fleming ikastetxeetan izan gara eta bertako haurrekin hitz egiten egon gara. Oso interesatuta agertu dira eta han nola bizi garen, haurrek nola ikasten duten, nola bizi diren, historia... galdetu dizkigute».

Intxaurrendoko eskolan ere izan ziren eta bertan ere harrera ezin hobe egin zieten adierazi dute, «duela 10 urte Carlos Alberto bertan izan zen», gainera. Eskola



II. Senidetze Eguna ospatu zuten maiatzaren 29an Adunan. A. MAIZ

hauz gain, Fraisorokoa ere bisitatu zuten. «Baratzak ikusi ditugu nola erein eta lantzen dituzten ikasteko. Liburuak oparitu dizkigute», azaldu dute. Gainera, El Salvadorretik hona, gazteak denboraldi batez ikastera etortzeko aukera izateko posibilitatea zabaldu zitzaion. Granada arrain-haztegi-ara ere bisita egin zuten.

Euskal Herrian barrena

Donostia ere bisitatu zuten. Ramosek kontatu duenez, Kontxa eta



«Demokrazian bakoitza libre da dituen ideiak zabaltzeko; eta hemen ez da hori gertatzen»

«Europar oraindik alderdi politikoak ilegalizatzen dituztela ikustea harrigarria da»

CARLOS ALBERTO HERNANDEZ
Udal ordezkaria



«Hemengo eskolak bisitatu ditugu eta oso interesatuta agertu dira gure herriarekin»

«Baratzetan nola erein eta lantzen dituzten ikasi dugu. Liburuak oparitu dizkigute»

BASILIA CLARIBEL RAMOS
Che Guevara gazte elkarteak kidea



«Faltzesen Euskararen Eguna ospatzen ari ziren eta interesgarria iruditu zitzaion ekitaldia»

«Hona etorri aurretik gazteekin ideia eta esperientziak tartekatzen zen buruan genuena»

SANTOS ELISEO SANCHEZ
Che Guevara gazte elkarteak kidea

te. Eta kontu hau munduan ez da ezagutzen», agertu du Carlos Alberto Hernandezek. Villabonako euskal presoetako bat nola askatu duten bizitzeko aukera izan dute eta beraiek ere, herriak sentitu duen «poza» nabaritu dute. «Begtetan pozaren distira nabari zitzaion guztiei. Oso pozik zeuden».

Demokraziarik ez dagoela ere badiote: «Hau ez da demokrazia. Demokrazian, norbanakoa libre da dituen ideiak zabaltzeko eta zabaltzeko. Leku izan eta eztabaidatzeko aukera izatea da eta hemen ez da hori gertatzen». Eta beraiek asko harritzen dien beste gai bat ere aipatu dute: «guri oraindik asko harritzen gaituen gaietako bat da Europan oraindik alderdi politikoak ilegalizatzen dituztela».

Beraien lurraldeko kasuak kontatu nahi izan dute: «gure lurraldean 70-80. hamarkadetan gertatu zen. Eta gerra egiteko arrazoi nagusietako bat izan zen, zeren demokraziaren bidetik ez ziguten lekurik uzten ezertarako eta 12 urte iraun zuen gerra hark».

Euskal ohiturekin harrituta

Jarraian, Santos Eliseo Sanchezek hartu du hitza eta Nafarroara egindako bisita kontatu du. «Faltzesera eginiko bisitan asko harritu ninduten gazteek. Jarduera kultural bategatik zenbat gazte zeuden elkartzuta ikustea guretzat oso datu baliagarria da». «Esan digutena arabera leku horietan euskara ez da oso hizkuntza erabilia eta ekitaldi hori -Euskararen Eguna- bultzatzeko antolatua zen. Gazte asko zegoen elkartuta eta jende asko zebilen ongi pasatzen. Nola bait euskararen eguna ospatzen ari ziren eta interesgarria iruditu zitzaion egun hori horrela mantentzea», azaldu du harrituta.

Elkarte gastronomikoetako funtzionamenduak ere harritu ditu hiru gazteak: «zenbait elkartean ere izan gara eta bertara doan jendearen legaltasuna harrigarria da: kontsumitu, apuntatu eta ordaindu egiten du!».

Euskara pixka bat ikasi dute eta uste baino gehiago entzun dutela diote, «ausarta» dena euren ustez, izan ere, beraiek ere bazituzten hizkuntza desberdinak, baina galdu egin dituzte.

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31600 Leizua

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebecka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Deialdiak

Deialdiak

■ **Tolosa.** San Joan festak direla eta, Iturriza Elkaratek II. Mus Txapelketa antolatuta du. 4 eta 8 erregeen modalitatean jokatu dute parte hartzen dutenek. Ekainaren 16a bitartean egongo da zabalik izena emateko epea. Interesa duten bikoteek, Iturriza Elkartera hurbildu beharko dute goizeko 10:00etatik 12:00ak bitartean. Txapelketa ekainaren 23an hasiko da 10:30ean.

■ **Tolosa.** Emakumeen ekarpenaz Tolosako historian II. Ikerketa Beka deitu du Udalak. 9.000 euroko beka eta 12 hilabetetan burutzeko. Oinarriak <http://berdintasunatosaldekoudala.blogspot.com> helbidean. Lanak udaletxean entregatu behar dira, erregistroan, ekainaren 23a baino lehen.

■ **Ibarra.** Sanbartolome jaiatarako kartel lehiaketa. Ibarroko biztanleek parte har dezakete, lanak 22 x 22 cm formatuan (argazkia, marrazkia, pintura) gai librean. 300 euroko saria.

Aisialdia

■ **Tolosa.** Eduardo Mokoroa udal musika eskolak 4-12 urteko neska-mutilentzat udako koloniak antolatuta ditu uztailaren 5etik 16ra, astelehenetik ostiralera 9:30etik 13:30era eskolan bertan. Informazioa 943 651593 telefono zenbakian.

Jaia

■ **Altzo.** Eskola Txikien festa egun osoan zehar: 10:30ean harrera plaza, 11:30ean jolasak plaza eta frontoian, 13:30ean lekukoa eskuz aldatzea, 14:30ean bazkaria frontoian (katering) eta plazan (etxetik eramandakoa), 16:30ean Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldia plaza, 19:00etan Lain taldea plaza, 20:30ean bertsolariak plaza (agurra), 21:00etan Oinazet taldearekin erromeria. Egunean zehar puzgarriak, erakusketa, eskulan tailerra, karts, rokodromo, Irrintzi erraldoi konpartsa, kalejirak...

Gastronomia

■ **Tolosa.** *Illargi Coupage* gastronomia azoka Zerkausian. Gaurko bazkaria: munduko haragiak (bisonte, gazela, idia eta kanguroa) Nicolas, Julian eta Burruntzi erretegien eskutik.

Ikastetxeen festak

■ **Tolosa.** Laskorain Ikastolaren festa egun osoan zehar Usabalen:

bizikleta martxa, jolasak, emanaldiak, bazkaria, gurasoen jolasak, musika eta pantaila erraldoia Real-parten partidua ikusteko.

■ **Anoeta.** Anoetako Ikastolaren Eguna: 09:00etan ibilaldi neurturua hasiera; 11:00etan kalejira Loatzoko musika eskolaren laguntzarekin; 12:00etan ikasleen emanaldia Kiroldegian; 12:30ean futbol partida; 14:00etan bazkaria; 16:00etan jokoa; eta goizean zehar eskularen erakusketa ere bisitatu ahal da.

Zinema

■ **Tolosa.** *Baaria* filma Leidor aretoan 19:30ean.

■ **Tolosa.** *Oceanos* filma Leidor aretoan 17:00etan. Bihar, aldiz, ikuslearen eguna, 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Petra Pintado hunkiturik, Txixi Orbegozo margolariarekin eta koadroan agertzen diren bi emakumekin. I.T.

Petra Pintadori eskaini dio Txixi Orbegozo margolari tolosarrak 'Kuttunak' ekimenaren hirugarren margolana; Trianguloan dago egunotan ikusgai.

Petrak ere badu berea

INIGO TERRADILLOS

Txixi Orbegozok Petra Pintadori eskaini dio *Kuttunak* ekimenaren hirugarren lana. Herenegun inauguratu zuten Trianguloa plazan, eta bertan izan zen margolariarekin batera omendua, eta baita une berezi horretan Petrarekin egon nahi izan zuen herritar ugari ere.

Gerraostekogarraigogorrean Iurreamendi egoitzan arazoak zituzten haurrak, umezurtzak zirenak askotan, zaintzeagatik egin zen ezagun *La Petra*. Bera Benefizentzia Etxean bizi izan zen txikia zenetik, eta handitu zenean bere moduan bizi zirenak lagundu nahi izan zituen.

Oso hunkiturik azaldu zen Petra

koadroa erakutsi zutenean. Hain zuzen ere, margolanean berarekin batera azaltzen diren emakumeetako bikendu zioten oihala lanari. Petra izan zuten laguntzaile emakume horiek haurrak zirenean. Eurenkin batera Elena Basagoitia Iurreamendi egoitzako zuzendaria ere bertan zen. Pintadok egini izan zuen herritar ugari ere.

Trianguloan egongo da ikusgai egunotan lana, baina egun batzutan baino ez, izan ere, Orbegozok Iurreamendi egoitzari eman dio koadroa, eta behin egun batzuk igarota bertara eramango dute bertako han uzteko.

Hurrengoa Sor Vicentari

Laugarren lana prestatzen ari da dagoeneko Txixi Orbegozo, eta hori Gurutze Gorriko Sor Vicenta Ciordiari eskainia izango da. Lan hauek egiteko ez du laguntzarik jasotzen margolariak, «soilik polycarbonatoari dagokiona Udalaren eskutik». Hori bai, Petrari dago-kiona egin ahal izateko herritar baten laguntza izan zuen.

Lan hauekin herriaren arrazoi bat edo besterengatik ezagunak izan diren pertsonaiek omendua nahi dituzte margolariak. Baina, Tolosan ez ezik, ekimenagure mugetatik at zabaltzea du orain buruan, eta badirodi laster Donostian ikusi ahal izango ditugula bertako pertsonaiekin eginko margolanak.

TARTALO DENDA
-Plaza zaharra-
TOLOSA

Plaza zaharrean irekia izango dezute dabozen bi aste buruetan Ostegunetik Larunbetera
EKARRAK 10-11-12
17-18-19

Kolekzio berria eta Stock eskeintzarekin

Artiketxe nekazaturismoa



M^a Lourdes Ruiz Bilbao
Artike, 16 48370
BERMEO (BIZKAIA)

Tfnoa: (+34) 946 885 629
Faxa: (+34) 946 882 312

Bakio eta Mundakako hondartzen artean kokatua, Bermeoko kaxkotik 1 Km tara, Urdaibaiko biosferan, 6 logela bikoitz, denak komunarakin, TB duen egongela eta hiru terraza ditu. Baserriko produktuekin eginko gosariak eskaintzen dira. Inguruan ekiniza ugari egiteko aukera dago.

Uxola Sariak 2010

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



DATORREN URTERARTE

TOLOSA Gaurko alearekin bukatu dugu Uxola Sariak 2010eko lan irabazleen argitalpena. Gaurkoan nagusieneren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako (14, 15 eta 16 urte) lanak topatuko dituzue; Unsain, Esnaola, Teijeira, Lopez, Vicente eta Ugartemendiaren sormenarekin gozatu ahal izango duzue.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila: Prosa

'Urtebeteko agurra'

NEREA UNSAIN TOLOSA › 1. saria

1. Kapitulua

Nire baitan, bakardadean nago, hondartza honetako itsas ertzean. Marea igozo doa eta ni, lurlean hare leun eta gozo honen gainean eserita nagoelarik, olatuek nire azala bustitzen dute, baina jada ez dio axola, jada ezerk ez nau mintzen. Gehien maite nuen pertsona galdu dut, eta orain hutsik sentitzen naiz, nire zati handi bat falta balitz bezala. Ortzemugara begira nago, ohitura genuen bezala, baina oraingoan bakarrik... Begirada nire oroitzapenetara zuzendua dudalarik malko bat iritxen zait begietatik eta masailetik behera irristatzen da lurreko hondarrera erori arte. Ondoren bigarrena, jarraian hirugarrena eta azkenean negar zotinka amaitzen dut, beti bezala...

Baina hala ere, hondartza hau da gehien lasaitzen nauen tokia. Hemen bizi izan baititut berarekin oroitzapenik gozoenak eta nahiz eta beti negarrez amaitu, hemen da beregandik gertuen sentitzen naizen tokia... Hondartza honek eman dizkit bere irrifar gozo eta sutuenak, bere besarkada beroenak, baita bere malko hotz eta ilunenak ere... Hemen olatu eta hare artean bizirik diraute berarekin izandako bizipen onenek...

2. Kapitulua

Abenduaren 13 a da eta zerua ilun dago Zumaiian. Nire urtebetetze eguna zen, 17 urte bete nituen eta guztia ondo baino hobeto zihoina. Jada 17 urte bete nituen, munduko mutilik zoragarriena neukan, Koldo du izena, familia ezin hobea, lagun onenak beti alboan edozertarako... Guztia perfektua zen. Egun hartan,

munduko neskarik zorionsuena nintzen; lagun guztiek zoriondu ninduten, opari pila jaso nuen, Koldok ere sekulako opari ederra egin zidan eta Haizea, nire ahizpa zaharrena, etxera etorria zen unibertstatetik. Gauza batek kezkatzen ninduen. Haizeak ez zuen inoiz klaserik galdu, izan ere, Gasteizen bertan geratzen baitzen lotan eta aste hura ez zen jai astea, aste normala baizik, baina hala ere, ahizpa etxera etorria zen baina okerrenena ez zen hori; Haizea oso triste zebilen azken hilabetean. Ez zuen ia mezurik erantzuten, ez zuen hitz egiten eta oso burumakur zegoen. Saiatu nintzen horren zergatia jakiten baina ez zidan ezertxo ere esaten. Maitasun kontuak edo izango zirela pentsatu nuen, beraz, ez nion garrantzia handiegirik eman.

Egun perfektua zen hura, baina etxera iristean Haizea gutun azal bati begira negarrez ikusi nuen. Izutu egin nintzen baina ezer esan gabe, nire logelara joan nintzen zer gertatzen ote zitzaion pentsatuz, oraingoan, oso kezkatutik. Zein ote zen arrazoia? Maitasun kontuak? Lagunen bat? Pentsatzen jarraitu nuen eta bat-batean burura etorri zitzaidan.

-Noski!-oihu egin nuen.

Ziur aski, eskuan zarabilen gutuna izango zen haizea horren gaizki egotearen arrazoia. Beraz, isil-isilik bere logelara sartu eta gutun hura hartu nuen. Gutun-azalean, ospitaleko logotipoa ikusi nuen, ez nuen ezer ulertzen baina hala ere, orri hura hartu eta irakurtzen hasi nintzen. Gutun madarikatu hura irakurtzean, mundua gainera erori zitzaidan, irtenbiderik gabeko zulo beltz batean sartua nengoela uste nuen. Izaturik nengoen, ez nekien zer pentsatu, zer egin, zer esan...

Ametsa ote zen? Ez, benetan gertatzen ari zen.. Berriz gutuna hartu, eta zortzi letraz ostutako hitz beldurgarri hura berrirakurri nuen: minbizia... Nire ahizpak minbizia zuen, minbizi sendagaitza, irtenbiderik gabekoa, urtebetean, arima eta guzti jango zuena... Hura zen epea, urtebetekoa. Horren ondoren, heriotza Haizea berarekin eramatera etorriko zen

3. Kapitulua

Jadanik bi hilabete paseak ziren berri hura jakin nuenetik. Etxean isiltsuna besterik ez zegoen baina gehienetan norbaiten negarra entzuten zen. Lagarren hilabetean burua altxa eta geratzen zitzaidan denbora guztia aprobetxatzea erabaki nuen. Betirako galdu behar nuen ahizpa, beraz, denbora aprobetxatu behar nuen. Horretarako, eskolaz kanpoko ekintza guztiak uztea erabaki nuen denbora asko kentzen baitzidaten.

Egun eguzkitsua zen hura. Eguzki izpi goxokoz azal gainean goxotasuna ematen zuten eta haize leun hark nire ilea leunki mugiarazten zuen. Eguraldi eder hura ikusirik Itzurun hondartzara joatea otu zitzaidan arratsalde pasatzera. Ahizpari joan ote nahi zuen galdetu nion eta hark baietz esan zidan, beraz, arratsaldeko bostetan hondartzara iritsi ginen. Nahiz eta oraindik apirila izan giro aparta zegoen itsasertzean etzanda egoteko. Bi orduz jardun genuen hizketan Haizeak eta biok. Bere gaixotasunaren nondik norakoak azaldu zitzaidan. Odoleko minbizia zuela esan zidan eta medikuek ezin zutela erori eta, jadanik, bere barnean piztita hura dena birrintzen ari zitzaiolako. Beranduegi omen

zen. Hori entzutean, korrika joan eta negarrez hasteko gogoia sartu zitzaidan baina gogo hura kontrolatzea erabaki nuen, ez bainuen uste hark nire ahizpa zaharra ondo sentiaraziko zuenik eta nik adorea eman nahi nion. Beraz, begietara begiratu eta oraindik ez dakit nola, baina nuen indar guztia atera eta irribarre bat eskaini nion. Hala ere ezin izan nion luzaroan eutsi, malko bat erori baitzitzaidan eta Haizea guztiaz ohartu zen. Nigana hurbildu eta besarkada bat eman zidan. Inoiz eman didaten besarkadarik beroena. Ondoren, begietara begiratu, bere irribarrerik ederrena eskaini zidan. Ni guztiz txunditurik nengoen. Bera zen bizia galtzen ari zena baina hala ere, ni hobeto sentiarazteko barruan zuen adore guztia ateratzen zuen alderantziz izan beharrean. Arratsalde zoragarria izan zen hura, eta handik aurrera ia egunero joaten ginen Itzurunera. Hura bihurtu zen gure txoko maitatuena. Gure Zumaiako hondartza txikitxo hura.

4. Kapitulua

Apirilak 28 a zen. Egun hau gogoan izango dut beti. Egun hartan Koldo, nire mutilaguna, aurkeztu nion Haizeari. Koldo oso urduri zegoen ez baitzekien zer esan Haizea aurkeztean. Haizea, Koldoren urduritasunaz ohartzean, barrez hasi zen eta lasai egoteko esan zion. Arratsaldean inguruko mendi batera joan ginen bertako zelaitxo batean eguzkipean egotera. Koldo eta ni elkarri eskutik helduta igo ginen eta Haizeari begiratzean arnas estuka ikusten nuen, ezin zuen gehiago... Koldoren aurrean disimulatzen saiatzen zen baina ni ezin ninduen engainatu. Pixkanaka nola hiltzen ari zen ikusten nuen, nola ahizpa galtzen ari nintzen ohartu nintzen. Koldori eskua askatu eta



HITZA

Haizearengana joan nintzen hari laguntzera, berak eskerrak eman zitzaidan. Arratsalde mendian igaro genuen hara eta hona eta berriz Zumaiara itzultzean, Haizea erabat nekaturia ikusi nuen. Koldo agurtu eta berriz ere, Itzurunera joan ginen arratsaldeko azken eguzki izpiak aprobetxatuz. Arratsaldeko zazpiak zirenean baina hala ere, sekulako giroa egiten zuen Zumaiako hondartza hartan. Eguzkiak itzal zoragarria egiten zuen Itzurungo itsalabarretan eta itsasoari kolore laranja edo gorrixka ematen zion. Haizeak Koldo oso mutil jatorra eta alai zela esan zidan eta horrek izugarri poztu ninduen. Itsasoari begira geundela, Haizeak lepoko bat atera zuen bere motxilatik. Lepokoa, urrezkoa zen, oso ederra, eta zeruan ikusten diren airezko globo erraldoi baten irudia zuen. Benetan zoragarria zen. Lepokoa eskuetan zuelarik, esan zuen:

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)

(Urtebeteko agurra'ren jarraipena)

- Eider, lepoko hau amonak amari eman zion eta amak geroago niri. Nik nire alabari eman behar nioke baina biok dakigunez, ezin izango dut hori egin. Horregatik, zuri eman nahi nizuke, zeuk gorde dezazun, nire ahizpak badakit ondo zainduko duzula eta.

- Ez esan horrelakorik!

- Entzun Eider! Badakit mingarria dela, baina hala da. Badakizu laster ez nauzula hemen edukiko, horregatik, zuk edukitzea nahi dut lepoko hau. Nahiz eta hemen aurrez-aurre ez egon, beti edukiko nauzulako zure alboan, zu zaintzen edozein momentu eta egoeratan ere zure ahizpa naizelako eta maite zaitudalako

Hori esatean, hare gainetik altxa eta ziztu bizian abiatu nintzen korrika itsaso ertzera eta han, lurrera bota nuen neure burua. Lurrean, olatuek bustitzen nindutela, negar betean hasi nintzen, oihuka ukabilarekin lurra joz. Amorrua sentitu nuen.

- Zergatik? - galdetzen nion neure buruari. Zergatik zu? Inoiz inori ezer txarririk ez diozu egin eta! Zergatik?... eta negarrez jarraitu nuen. Haizea nire albora etorri zen eta lurretik altxa ninduen. Orduan besarkada bat eman zidan eta bera ere negarrez hasi zen.

- Sentitzen dut... esan nion nik.

Eta berak estuago besarkatu ninduen. Ondoren malkoak eskuz lehortuz, lepoko eman zidan eta nik nire lepoan jartzeko eskatu nion. Berak pozarren lotu zidan eta jarraian hauxe esan zuen:

- Oraindik gogoan dut txikiak ginela zenbat aldiz jarduten genuen eztabaidan baina hala ere, beti adiskidetzen ginen, izan ere, inoiz ezin izan dugu haserre egon 2 egun baina gehiagoz. Beti nigana jotzen zenuen edozein arazo izanez gero eta nik beti ematen nizun irtenbideren bat. Eta orain, 10 urte geroago, begira zer nolako neska ederra egin zaren Eider. Bihotz zabala daukazu, irribarre zoragarria, neska zuhurra zara eta baita argia ere. Horregatik, badakit lasai joan naitekeela, edozein egoera edo arazotan ziur bainago erabaki egokia hartuko duzula eta bizitzan estropezu eginez gero, badakit adorez altxa eta zure bidea jarraituko duzula, kementsu.

Berriz ere negarrez hasi ginen, hunkiturik. Inoiz ez ditut Haizearen hitz horiek ahaztuko. Berak hori esatea oso garrantzitsua baitzen niretzat.

5. Kapitula

Dagoeneko abuztu amaieran geunden. Urte erdia baino gehiago igaro zen baina nire bizitza osoko hunkigarriena izan zela esan dezaket. Ia egunero ahizparekin pasatzen nuen egun osoa eta egun zoragarriak ziren denak. Izugarri ondo pasatzen genuen elkarrekin. Barre egiten genuen, argazkiak atera, ibilaldi ederrak antolatuz, gure hondartza kuttunean gitarra joz abestu... Zoragarria zen dena, baina beti gauza bera nerabilkien buruan bueltaka; Haizea galtzen ari nintzen, laster joan egingo zen. Nekatua ikusten nuen beti, amasestuka, energia gutxirekin... Baina hala ere beti irribarre bat ahoan zuelarik. Abuztuaren 28 a zen, eguraldi bikaina zegoen Gipuzkoan beraz, Koldo, Haizea eta hirurok Igeldora joan ginen egun-pasa. Han bertako jatetxean bazkaldu genuen. Jaten ari ginela, Haizea ikusten genuen, eraikin mota guztiak, Urgul mendia, irla etab... Han ikuspegi zoragarri haiei begira geundela Koldok hauxe galdetu zidan:

- Eider, galdetzerik badaukat, zer gertatzen zaie zure ahizpari?

- Zergatik galdetzen duzu hori?

- Ez dakit, ez diot aurpegi onik ikusten eta zurbil dagoela iruditzen zait.

- Bai arazoi duzu Koldo. Guk sekretupean mantendu nahi genuen baina zuri ezin dizut gezurrik esan, ezin dut gehiago, barnea hustu beharra daukat.

- Nitaz fida zaitzake. Esan lasai.

- Beno egia esan... Zaila da azaltzen.

- Lasai Eider ez baduzu esan nahi lasai. Ulertuko dut.

- Ez, ez da hori, nik kontatu nahi dizut baina kosta egin zait. Tira hor noa. Haizeak minbizia dauka eta dagoeneko 3 hilabete besterik ez zaizkio geratzen gutxi gorabera.

Koldok harriturik zegoen baina ezertxo ere esan gabe besarkatu ninduen. Ni bere beso artean, babesturik sentitzen nintzen,

epel, eta lehen aldiz ez nintzen negarrez hasi horri buruz hitz egitean. Agian Koldok lasaitzen ninduelako zen, auskalo...

6. Kapitula

Irailaren 14a zen. Egun haietan Haizea inoiz baino okerrago ikusi nuen. Hain ahul zegoenez, medikuak indarbertitzeko pilula berezi batzuk eman zizkion eta horri esker, eguneroko gauza normalak egin ahal zitzakeen baina hala ere, gaizki zegoela nabari zen. Uda amaitzen ari zen, eguraldiak ere hori adierazten zuten, baina hala ere, kanpoan haize epela zegoen, egokia, osteratxo bat emateko. Ni Koldorekin geratua nintzen filmen bat ikusteko baina Haizeak berarekin Itzurumera joateko eskatu zidan, bakarrik aspertu egingo zela eta. Nik ezin izan nion eskaera horri ukorik egin.

Arratsalde osoa kartetan jolasean igaro genuen eta nire etorkizuneko ametsen inguruan berriketean. Solasean ari ginela, Haizeak begirada goibel batekin esan zidan:

- Zuk zorte handia duzu Eider. Zure ametsak betetzeko bizitza osoa daukazu aurretik baina nik ordea...

- Baina Haizea oraindik badugu denbora, saia gaitzen! Zein da zure ametsa? Bete dezakegu!

- Ez Eider ez, ezinezkoa da nire ametsa betetzea. Badakizu zergatik? Nire ametsa txoritxo eder bat izatea delako, zeru urdinean hegan egin ahal izateko, eta hori lortzea ezinezkoa da.

Isilune bat egon zen bion artean. Bat-batean Haizea altxa eta ezertxo ere esan gabe, itsasertzera joan zen oinez, poliki-poliki. Ni berari begira geratu nintzen. Egun hartan oso eder jantzirik etorri zen, soineko zuri batekin, ainguerua zirudien. Han oinak bustiz, hamar minutu igaro zituen, bere baitan, auskalo zer pentsatuz, ondoren niri begiratu eta barre eginez berriz ere itsasoari begiratu zion. Ura inoiz baino garbiago zegoen, baina olatuak ere, indar handiagoz egiten zuten talka Itzurungo itsaslabarretan. Ederra zen ikuspegi hura, paregabea. Zoragarria zen gure hondartzatxoa. Halako batean, arropa eta guzti, itsas barnera sartzen hasi zen. Nik harriturik begira jarraitu nuen. Itsasoko olatuek Haizea blai egin zuten, eta hara eta hona zebilen aireak, nire ahizparen soineko zuria mugiarazten zuen. Bere urrezko ileak sekulako distira egiten zuen eguzki izpiekin batera. Haizea eder zegoen benetan. Bat batean dena ulertu nuen. Haizeak garaia zela sentitu zuen! ... Nik ezin nuen

hori onartu. Korrika altxa eta inoiz baino azkarrago arinetan egin nuen uretara jausi arte. Arrapaladan igerian hasi nintzen nire indar guztiekin bera zegoen lekuraino iritsi arte. Urrutira joana zen, nire hankak ez baitzuten lurrik ukitzen.

- Haizealoihu egin nuen. - Haizea!

Orduan Haizeak bira eman eta esan zidan:

- Geldi! Eider, ordua iritsi da, utz iezadazu nik nahi dudana bezala joaten, mesedez!

- Baina...

- Ez!... moztu ninduen berak... Hasieratik nekien gaur zela itxaroten egon garen eguna. Horregatik eskatu dizut hona etortzeko nirekin, agur esateko Eider.

Eskutik heldu ninduen eta aurpegiak elkarren aurrean jarri genituen gure sudurrek elkar ukitzen zutelarik. Pare bat minutuz egon gien horrela, isilik... Biok amasestuka geunden. Ez nuen momentu hura bukatzerik nahi, ez nuen nire ahizpagandik urrundu nahi...

- Agur Eider...

- Faltan botako zaitut...

Kopetean musu eman zidan eta ondoren hauxe esan zidan:

- Ez dut zuk hau ikusterik nahi Eider. Itzul zaitetz itsasertzera... Maite zaitut ez ahaztu.

- Nik ere maite zaitut...

Eskutik askatu eta ur ertzera itzuli nintzen malkoak begietan nituelarik. Egia esan, ulertzen nuen Haizearen egoera. Berak horrelakoa izatea nahi zuen momentu hura. Hemen alde egin beharra zuen, heriotza bere bila zeterren, baina Haizeak bera garaitu zuen. Heriotzak nire ahizpa eraman zuen bai, baina harro.

Uretatik irtetea, pentsatu ere egin gabe, bira eman nuen Haizea azken aldiz ikusteko, baina Haizea ez zegoen...

Nire baitan, bakardadean nago, hondartza honetako itsas ertzean. Marea igoz doa eta ni, lurrean hare leun eta gozo honen gainean eserita nagoelarik, olatuek nire azala bustitzen dute, baina jada ez dio axola, jada ezerk ez nau mintzen. Gehien maite nuen pertsona galdu dut, eta orain hutsik sentitzen naiz, nire zati handi bat falta balitz bezala. Ortzemugara begira nago, ohitura genuen bezala, baina oraingoan bakarrik... Begirada nire oroitzapenetera zuzendua dudalarik malko bat irteten zait

begietatik eta masailetik behera irristatzen da lurreko hondarrera erori arte. Ondoren bigarrena, jarraian hirugarrena eta azkenean negar zotinka amaitzen dut, beti bezala...

Baina hala ere, hondartza hau da gehien lasaitzen nauen tokia. Hemen bizi izan baititut berarekin oroitzapeniek gozoenak eta nahiz eta beti negarrez amaitu, hemen da beregandik gertuen sentitzen naizen tokia... Hondartza honek eman dizkit bere irrifar gozo eta sutsuenak, bere besarkada beroenak, baita bere malko hotz eta ilunenak ere... Hemen olatu eta hare artean bizirik diraute berarekin izandako bizipen onenek...

7. Kapitula

Gaur, hilabete beranduago, Haizearekin izandako azken elkarrizketan pentsatzen egon naiz. Bere ametsen. Nola bete amets hori? Txoria izatearena, nola bete? Hori pentsatzen ari nintzela, Haizearen lepoko, eskuartearen nuen, eta bira ematean, globoaren irudia ikusi dut, orduan, ideia bat otu zait. Hondartza ondoko feriara joan naiz. Bertan, barrakak, jateko dendak eta guzti jarri dituzte herriko festak direla eta, eta barraketako bat globo handi horietako bat da. Haizearen errautsak hartu eta globo horren gainera igo naiz Koldorekin batera. Nik altuereri sekulako beldurra diedanez, Koldori gogor heldu diot eskua eta berak atzetik, gerria inguratu dit bere besoekin. Abiatu da globo. Itzurun hondartza aldera joateko erregutu diot globo gidariari, oso garrantzitsua zela eta, beraz, hara joan gara.

- Haizea hemen zaude, txori moduan zeru urdinean hegan. Esan nizun, zure ametsa bete zitekeela, baina ez genuen astirik izan elkarrekin betetzeko. Horregatik, gaur zure errautsak hartu eta hona etorri naiz. Zuk agian, hemen zeundela ez baitzenuen zure ametsa betetzetik izan, eta horregatik, nik beteko dut zure ordez.

Errautsen ontzia ireki eta globotik behera jaurti ditut Haizearen errautsak. Ondoren zerura begiratu eta hauxe esan diot nire ahizpari:

- Pozik bizi zaitzen, Gure hondartza kuttunean utziko zaitut, haizeak gida zaitzala nahi dudun lekura, egin hegan, goza ezazu... eta nahi duzunean, etorri niregana, orain zu zeu baitzara haizearen gidari.

Laster topatuko gara ahizpatxo... Ordurarte ondo ibili...

'Obsesioa'

Marta Teijeira Pando ▶ 3. saria

«Ezin da azaldu barruan nabaritzen dena. Bai, hori da, adrenalina hutsa. Momentu horietan sentitzen dena, milaka pertsona daudenean gortinatxo gorri baten atzean zure zain. Zu ikusteko irrikaz. Zure abestiak entzun nahi dituzte. Bere dirua eman dute zu ikusteko, zugiandik metro batera egoteko aukera izateko.

Ez zaude ziur, ez dakizu dena zuk espero bezala aterako den. Ahotsa dardarka, baita bihotza ere. Urduri zaude. Mundu guztiak hori ez nabaritzea espero duzu. Kamerinoko ispiiluaren aurrean jartzen zara, behin eta berriz begiratu eta gero, zure ahotsarekin saiakerak egiten dituzu. Dena uste bezala dihoa. Geroz eta denbora gutxiago geratzen zaizu. Zure managerrak eszenatokia ateratzeko agindua ematen dizu. Zure momentua da, zurea bakarrik. Ez duzu atera nahi, oso urduri zaude, baina bestalde, betidanik amestutakoa egin eta zure abestiak inoiz baino hobeto abestu nahi dituzu. Kemena duzu ateratzeko, zure nerbioak gainditzeko.

Eszenatokia zapaltzen duzu. Adrenalina nabaritzen duzu zure zainetatik jariatzen, pertsona horiek guztiak zure izena oihukatzen entzuten dituzuean, urte hauetan itsusia iruditu zaizuna, baina denbora honetan inoiz baino garrantzitsuagoa eta dotoreagoa iruditu zaizun izena. Oihukatzen ari dira, beraien aurpegi alaiak ikusten dituzu, bere kopetan zure izena margotuta daramate. Mutilak eta neskek. Bat-batean, zure singelaren doinua entzuten duzu bozgoragailuetatik. Zure lehenengo abestia, hainbeste landu duzuna. Gehien gustatu zaizuna. Abesti bikaina benetan. Abesten hasten zara, zure jarraitzaileek zurekin batera abesten dute. Zuk baino hobeto dakite, harrigarria da.

Azkenean, bukatu da. Asko gustatu zaizu, pozik zaude zure emaitzarekin. Zure lehenengo aldia, zure lehen kontzertua».

.....

Mundua isiltasunean dago, beno, bere logela behintzat bai. Logela handia eta koloreduna, nahiko

txukuna. Eguzkiak gela hori guztiz argitzen du. Geroz eta gutxiago damutzen da etxe hori erosi izanaz.

Ez da egun bero horietako bat, baina aste horretan eroritako elurteak eta gero, paradisuak dirudi.

Hor ikusten dugu Karen, leihoaren parean eserita, liburuska bat du eskuetan. Zer bait idazten ari da. Poliki-poliki hurbiltzen gara, pasadizoren bat idazten ari dela ematen du, esperientzia pertsonalen bat. Ulertzen dut, bere lehen kontzertuari buruz idazteari ekin dio. Haren ospearen zabalkuntza. Bere hasiera.

Urte bat eta zazpi hilabete igaro dira kontzertu horretatik. Bere oroitzapenean gordeta izango du beti. Kontzertu berezia da berarentzat, bere lehen kontzertua. Ondo pasatzen du gomutara ekartzen duen bakoitzean. Ez du zerikusirik gaur egungo ikuskizunekin. Hasiberria zen eta.

Sakonki arnasa hartzen ari da, zerura begiratzen duen bitartean. Zeru oskarbia, baina denbora gutxiroko izango dela susmatzen du. Ilea motots nahasi batean jasota dauka. Ile kizkurra, apur bat minduta bere estilistak egiten dizkion orrazkeren ondorioz. Betidanik zaindu duen xehetasuna da hori, bere ile kolorea. Oso berezia iruditzen zaio eta horrek originaltasun puntu bat ematen diola pentsatzen du. Ilgorria da, gereziak udaberriaren duen kolorearen antzekoa. Begi beltz handiak ditu, atxabitxia bezain beltzak, bere amonak esaten zion bezala, betile luze eta beltz batzuekin. Mundu guztiak bere begiak begiratzen zituen, eta betirako beraien oroitzapenean gordeta edukitzen zituzten, hala ere, berak ez zituen bere begiak gustoko eta ez zekien zergatik gustatzen zitzaizkion jendea hainbeste.

Sudurmotza zen, sudur ezin hobearekin aurpegirako, ezpain batzuek lagunduta, ez ziren oso

meheak, baina ezta oso lodiak. Bere ezpainak ziren, eta ezin ziren beste batzuekin alderatu. Denboraldi honetan ezagutu duen jendeak ezpain lodi eta perfektu batzuk zituen, baina botox-arekin erabat beteta. Oso artifizialak ziren. Berak inoiz ez ditu bere arbasoak eman dizkieten ezaugarriak aldatuko. Jaiotzen bezalakoa izaten jarraitu nahi du.

Bere etorkizunari buruz hainbat minutu hausnartu eta gero, bere betiko lagunari deitzea erabakitzen du. Bera zen gauzak ziren bezala esaten zizkiona eta ez zuen bere ospea bilatzen. Zuriñe, hori lagun bat da, benetakoa. Beti, zure bizitzan zehar, zure ondoan egotea eta zure ondotik inoiz ez urruntzea nahiko zenukeen pertsonetako bat. Alaia, dibertigarria, lasaia baina beti oso zintzoa, baita fidela ere, edozein momentutan, edozein egoeratan, bere ondoan egoten da laguntzeko edota gomendioak emateko. Asko maite zuen Zuriñe.

Haririk gabeko telefono berria hartzen du, lehenengo astean erositakoa zen. Bere katua, Blas, telefono zaharraren hariarekin kiribildu zen, eta lurrera bota ondoren, konexiorik gabe utzi baitzuen.

Telefonoa eskuan zuenean, bere lagunminaren telefono zenbakia buruz tekleatu zuen eta ahots tonua entzun zuen, erantzungailu automatikoa hartzera zihoanean, ahots bat erantzun zuen:

- Bai? Nor da?

- Ni naiz.

- Zu, nor? Hamabost urteko neska-mutilak zorutzen dituen Pop-Star berria?

- Umore onez jaiki zara gaur, Zuriñe. - adiskidetasun handia dago beraien artean. Txantxa asko egiten dizkiote elkari eta gauza berdinak dituzte gustoko. Primeran konpontzen dira. - Zer

moduz zaude? Egundak pasa da azken hizketalditik, jada kezkatuta nengoan.

- Lasaitu zaitze, egun hauetan oso lanpetuta egon naiz. Haitin gertatutako hondamendiari buruzko artikulua bat idatzi behar nuen, oso zaila izan da, informazio asko behar izan dut eta. Ez naiz zu bezalakoa, nik lan egin behar dut nire bizitza aurrera ateratzeko, jaja.

- Utz nazazu bakean, zera... oso aspertuta nabil egun hauetan eta gauean ateratzeko gogo daukat, gainera, ezagutu ditudan lagun batzuek bi sarrera vip eman dizkirate gaur gauean ospatzen den festa baterako. Zergatik ez gara gaur dotore janzen eta mutilen bat bilatzera ateratzen? Estresa kanporatu nahi dut.

- Ez dakit... lan asko daukat bukatzeko.

- Anima zaitze neska, horrelako aukera gutxi izango dituzu bizitzan zehar. Sei eta erdietan etorri nire etxera eta bertan apainduko gara. Geroarte.

Telefonoa itzaltzen du. Ez du bere erantzuna entzun, baina gehiegi ezagutzen du Zuriñe, ziur dago bere etxera etorriko dela. Nolako den Karen. Oso harro egon beharko zen Zuriñe.

Denbora asko geratzen zaio Zuriñe etorri arte, horregatik bere ohean etzaten da, denbora luzez. Geroago, bere jarraitzailearen batek bidalitako gutunak irakurtzeko gogoia edukitu du. Horretarako, postontziko giltza hartu sarrerako arasaren tiraderatik eta ate nagusia irekitzen du, lorategia zeharkatu eta gero, postontzia irekitzen du. Bertan lau gutun daude, beraien bidaltzaileak begiratzen ditu. Ez, ez ditu ezagutzen, beno, egia esan, bat bai.

«Ez, berriz ez» esan zion bere buruari, eta inguruari behin eta berrin begiratu eta gero, etxe barrura sartu zen ziztu bizian.



HITZA

Beste hiru gutun ezezagunak mahai gainean utzi zituen, agian, beste momentu batean irakurriko zituen, ez zen momentu egokia.

Ezagutzen zuen gutuna eskuan zuelarik, bere logelako gaumahaiko kajo bat ireki eta bertan zeuden gutunak hartu zituen. Ohean eseri zen. Jasotako gutuna berriro begiratu zuen. Bai, berdinak ziren. Gutun berri horrek ez zuen bidaltzailearik, ezta zigilurik ere, kajoian gordetako gutunek bezala. Bihotzaren taupadak geroz eta sakonagoak nabaritzen zituen, ez, berriz ere horrelako zirra. Beldurra zuen. Gutxitan edukitzen zuen Karenek horrelako sentsazioa, oso neska ausarta zen, baina gutunazal haiek bere ausardiarekin akabatzen zuten. «Ez, berriz ez» esaten zion behin eta berrin bere buruari. Ez zuen nahi gutunazal hori irekitzerik, baina ireki egin behar zuen. Poliki-poliki gutunazala irekitzeari ekin zion. Hotzikara zorrotz bat sentitu zuen bere gorputzean zehar. Gelditu egin zen. Arnasa hartu eta beldur hori nola edo hala gainditzea zela modurik egokiena erabaki zuen. Irekita zegoen. Bertan zegoen orria hartu eta irakurtzen hasi zen:

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)

(‘Obsesioaren jarraipena)

«Kaixo berriz ere, polit hori: Geroz eta gogo handiagoa dut zu ikusteko. Lasai maitia, lasai, laster egingo dugu topo espero ez duzun toki batean. Eta momentu horretatik aurrera, beti egongo gara batera, eta inork inoiz ez gaitu bananduko, zin egiten dizut, pottoka. Ez dakit zergatik jartzan dituzun aurpegi horiek nire gutunak irakurtzean, ez eduki beldurririk, ez dizut ezer egingo, ezagutu egin nahi zaitut, hori bakarrik. Zergatik gordetzen dituzu nire gutunak besteengandik aparte? - Karen hori irakurtzean zur eta lur gelditu zen, nola zekien hori? Listua irentsi zuen, eta irakurtzen jarraitu zuen.- Bai, zuk uste duzun baino gehiago ezagutzen zaitut Karen, eta gainera, oso etxe polita duzula esan beharra daukat. Zuk bakarrik apaindu al duzu? Lasai, zuk nire etxea laster ezagutzearekin egiten dut amets eguneroko. Goizero, nire ohean begiratzen dut eta zu nire ondoan zaudela amesten dut, bat-batean esnatzen zara eta musu gozo eta luze bat ematen didazula amets egiten dut. Baina hori amets bat bakarrik da, denbora gutxi arte. Muxu handi eta bero bat. Laister arte. Maite zaitut.»

Minutu pare bat igaro zituen orri zuri horri begira. Gutun hau ez zen besteak bezalakoa, sakonagoa zen, baita beldurgarriagoa ere. Geroz eta gertuago zegoen. Hurbiltzen hasia zen eta edozein momentutan gertatu zitekeen. Ez, polizia ez. Ez zuen nahi horrelako istilurik sortu, gainera, agian, gutunetan geratuko zen bakarrik, ez zuen marra

zeharkatuko. Hori espero zuen. Pentsamenduetan itota geratu zen. Gauza gehiegi zituen buruan. Lo geratu zen. Ametsetan, egia esan, ametsgaiztoetan igeri egiten zuten. Gela ilun batean zegoen. Mugitzera zihoanean, goitik behera lotuta zegoela konturatu zen. Bere parean gizon bat zegoen, ezin zuen bere aurpegia ikusi, ilun baitzegoen. Bere ezker eskuan laban zorrotz bat zuen eta labanaren punta zorrotza bere lepora hurbiltzean... Ah! Esnatu egin zen. Arnasestuka zegoen eta izerdi tanta bat erortzen ari zitzaion kopetaren alde batetik. “Ez, berriz ez.” Esan zion bere buruari. Ez zen lehenengo aldia horrelako ametsgaizto bat izaten zuena, ezin zuen onartu gertatzen ari zitzaiona. Aurrera jarraitu behar zuen bere eguneroko bizitzarekin. Hogeita bi urteko neska baten bizimoduarekin.

Komunera joan zen, eta aurpegia busti zuen, bi eskuak ur epelaz betez. Bere “converse” beltzak jantzi eta bere zorroarekin kalera atera zen. Bere autoan sartu eta segundo batzuek geldirik egon zen. Zer egiten ari zen? Jabetzen zen jasaten ari zen arriskuaz, baina hala ere, bere beldurrak uxatu nahi zituen.

Gertuen zegoen merkataritza-zentrora joan behar zuen, gauerako pare bat pizza eta zenbait gauza gehiago erosteko. Autoa martxan jarri eta irratia horrelako istilurik sortu, gainera, agian, gutunetan geratuko zen bakarrik, ez zuen marra

uzten zaituztegu, Karen eta bere single berriarekin “Ametsen bila”, geratu eta gozatu.”

Irribarre zabal bat erakusten zuen bere aurpegiak berari buruz horrelako gauzak esaten zituztenean. Txikitatik amestu zuen. Abestea. Abestea zen bere ametsa. Urteak pasa ahala gertuago zegoen, eta argiago zeukan Karen hori izan nahi ziela bizitzan. Bere etorkizuna, bere bizitza.

Konturatu gabe iritsi zen merkatal gunearen lurpeko parking-era. Hutsik zegoen, laupabost auto zeuden bertan. Merkatal zentru txikia zen, ez zeukan ezer handirik. Autoa aparkatu zuen eta eskailerak igo zituen merkatal gunera iristeko. Bertan telebista kate famatu bateko kamera eta kazetari bat zeuden. Elkarrizketa txiki bat egin zioten eta erosketak egiteari ekin zion. Behar zituen gauzak hartu eta ordaindu egin zuen. Ordulariari begiratu. Berandu zebilen, denbora asko egon zen kazetariarekin hitz egiten. “Zuriñek hilko nau!” pentsatu zuen, horregatik oso azkar eskailerak jaitsi eta bere autora joan zen.

«Ez, berriz ez» esan zion bere buruari. Norbait jarraitzen ari zitzaioala iruditu zitzaion. Lasterka egin zuen bere autora iritsi arte. Autoaren maletategia irekin eta erosketa poltsak sartu zituen. Maletategiaren atea itxi eta norbait sumatu zuen bere bizkarrean. Esku beltzaren eta zaharkitu batek ahoa estali zion eta xiringa bat sastatu zion eskubiko besoan. Ziplo erori zen

lurrera, ez zuen gehiago gogoratzen, esnatu zen arte.

Begiak ireki zituen. “Ez, berriz ez” esan zion bere buruari, baina kasu honetan gertatzen ari zitzaiona ez zen amets bat. Errealitatea zen. Bahituta zegoen. Gutun horiek bidaltzen zizkion jarraitzaile ezkutua bahitu zuen. Gela iluna zen, ganbara bat ematen zuen. Ez zeuden altzari asko, eta zeudenak oso zaharrak ziren. Hotz handia egiten zuen. Mugitzera, lotuta zegoela konturatu zen, baita bozatu ere. Non zegoen bere arropa? Kamisoi fin eta arrosa batez jantzita zegoen, hotza zuen. Dardarka zegoen. Ez. Zer zen hori? Bere parean motxila berde bat zegoen, gauza asko zeuden ondoan. Negarrez hasi zen. Motxilaren ondoan armategi bat zegoen: balezta pare bat, beraien ordezkoekin; plastikozko geziak, puntak arpoien antzekoak zituztenak; eskuburdinak; gasolinaz betetako pote bat; soka lodia eta fin bat, beraien ertzetan urkatutako korapiloekin eta Karenen azkeneko CDa.

Bere amaiera zen. Azkenean, gertatu behar zena gertatu da. Bere ausardiak ekarri zizkion ondorioak jasan behar zituen. Poliziaren laguntzarik gabe, azkenean gertatu egin da. Oin-hotsak. Ez, ezin zion negar tantak botatzeari utzi. Eskailerak jaistera zihoan. Azkeneko saiakera egin zuen preso egiten zuen soka hori kentzeko, baina alferrik. Jaitsi egin zen.

Gutxi gora-behera berrogeita bost urteko gizon bat aurkitzen du. Ile beltza du, eta beltzarana

da. Irribarre mesfidati batekin begiratzen dio. Karenek, ordea, negarrez jarraitzen du. Beregana hurbiltzen da, eta beldurrira xuxurlatzen dio:

- Azkenean elkarrekin gaude, zu eta ni, betiko.

- Zer egingo didazu? - Esaten dio Karenek, negar zotikina.

- Shhh! - Erantzuten dio, zimurrez betetako eskua Karenen ahoan jartzan duen bitartean. - Bidaia bat egingo dugu, oso urrun, munduaren ezkutuko leku batera, oso ondo egongo zara, nire ondoan. Zu eta ni, bakarrik.

Bat-batean soinu arraro bat entzun da goiko solairuan, pertsonen ahotsak entzuten dira. Gizona beldurtzen hasi da, urduritzen hasi da. “Polizia! German Iturbide! German! Hor al zaude? Polizia!” oihukatzen dute pertsonak. German. German izena du nire bahizailleak.

Mugitzen hasi naiz, eta soinuak egiten saiatzen naiz, baina alferrik. Azkenean, gizezko horien ahotsak hurbiltzen hasi dira, eta azkenean bere ezkutalekura iristen dira. Bat-batean Germanek besapean gordeta zuen pistola hartu eta begiratu egin zidan, “Maite zaitut” esan eta... Pum. Tiro egin zuen.

Polizia etorri zen, eta haien atzetik Zuriñe. Aurpegia aldatu zitzaidan. Bera izan behar zen. Bizia salbatu zidan. Eskerrik asko. Orain ez dut jakin nahi nola lortu duen. Besarkada handi bat eman nahi diot. Betirako balioko duen besarkada. Zuriñe, eskerrik asko, benetan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila: Olerkia

‘Pianoa’

IRENE LOPEZ ALTUNA > 1. saria

Bat-batean, zure gainean ikusi dut esekita orria.
Deigarri.
Leun eta samur ikusirik gerturatzera behartu nauzu.
Zure ahoko kika zuri-beltzak dantzan hasi dira
nire hatzen erritmora.
Neure kaiolatik hasi dira txantxangorriak ateratzen.
Irudimena lantzen.
Zure ahotsak Re luze bat ahoskatu du eta, ondoren, Do eta Si...

Zure kantu hunkigarria entzunda hauxe irudikatu dut:

«Bakardadean dago. Samindurik. Baina badirudi aintzirako igelen kroek
begirada zimeldua loratzen lagundu diotela.
Txotxongiloen antzera hasi da mugitzen.
Nekez. Nagiro.
Zelaiko belar eztituak bere txikitako azal suabea dirudi, jada hondartzako arroka latza bada ere.
Altxatu da.
Ingurua miatu.
Orain arte behintzat arrotza egin baitzaio

ametsen lurralde hori.
Korrika eta saltoka hasi da gaineko tristuraren zama kendu nahian
Lehenik *Andante*
Ondoren *Presto*.
Konturatu barik baso beltz batean sartu da.
Beldurra zainetan adrenalina legez sartu zaio.
Aizkolariak zuhaitzak botatzen dituen bezalaxe erori zaizkio orain arteko ezezagun sentipenak.
Ezintasun sentipenak.

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)



HITZA

(Pianoa'ren jarraipena)

Pausatu du bere hegaldia.
Ritardando.
 Hurrengo udaberriari itxarotea erabaki du.
 Azkar iritsi da, ordea,
 edo hori iruditu zaio.
A tempo hasi da lasterketa.

Baina oraingo honetan ez beldurrez,
 argigune bat ikusi eta hara hurbildu nahian baizik.
 Tupustean iritsi da.
 Eta han, batera eta bestera begiratuz...
 Geldiezina, urduritasuna...
 eromena berriro.
Da capo.
Crescendo batekin
 amildegi bukaezin batera jausi da.
 Bukaezin esan dut?
 Ez, bukaezina ez,

Itzulezina.
 Bakardadean dago. Samindurik.
 Ez dago aintziran igelik,
 txotxongilorik, belarririk,
 ezta hondartzan arrokarik ere,
 Ez arrotza den lekurik, baso beltzik,
 beldur sentipenik,
 aizkolaririk, zuhaitzik, txoriaren
 hegaldirik, udaberririk,
 argigunerik, zoramen sentsaziorik.
 Ezta amildegirik ere.
 Ez dago *Andanterik*, *Prestorik*,
Ritardandorik,
A temporik, *Da caporik*, *Crescendorik*...
 Jada ez dago ezer»

Beste egun batean ukituko ditut zure
 ahoko kika zuri-beltzak
 eta beste behin aterako dira
 txantxangorriak
 hain gustuko duten zelaira.

'Bizitza ona'

MIREIA VICENTE PAGOLA › 2. saria

Denek ametsetako bizitza
 bilatzen ari diren bitartean,
 nik bizitzeko esperantza
 aurkitzen dut.

Denek eskuak bilatzen ari
 diren bitartean,
 nik nire zazpi eskuak
 banatzen ditut.

Denek munduaren
 etorkizuna bilatzen ari
 diren bitartean,
 nik iraganeko akatsak
 aurkitzen ditut.

Denek bere laranja erdia
 bilatzen ari diren bitartean,
 nik ingurukoekin gozatzen
 dut.

Eta orain, hondartzan,
 eguzkiaren izpi hartan,
 denboraren semeak
 besarkatzen nau,
 eta haize kizkurak nire
 gorputza laztantzen du,
 nik maitasunezko abesti
 bat kantatzen dioten
 bitartean.

Abestiaren fruituak
 haizearen malkoak
 bihurtzen dira.

Eta orain, mendiaren
 altxorrean nagoen
 bitartean,
 zeruko izar bati begira,
 gauako argitasuna
 barnertzen zait,
 nik esperantza ematen
 dioten bitartean.
 Esperantzaren fruitua
 gauaren irria bihurtzen da.

Eta orain, nire logelako
 lainoan etzanda nagoen
 bitartean,
 sabaiaien bakardadea eta
 tristurari begira,
 zeru zuriak konfidantza
 eskaintzen dit,
 nik bizitza ematen diodan
 bitartean.
 Bizitzaren fruitua
 sabaiaien zoriontasuna
 bihurtzen da.



HITZA



HITZA

'Zu zeu'

NEREA UGARTEMENDIA GARMENDIA › 3. saria

Zure tristura
 euri ilun batez beterik,
 bihotz bustia uzte duten
 horietako
 ekaitz beltza,
 zure malkoek
 botila hotz bat dirudite,
 min ematen duten begiak
 dira.

Zure poza,
 malkozko paradisu,
 samindu egiten duten
 horietako
 irribarre xumea,
 zure ezpainen
 mendi lau bat dirudite,
 alaitu egiten duten
 irribarre da.

Zure maitasuna,
 infernuko aingerua,
 nahasten gaituen
 horietako
 lore kirasduna,
 zure bihotza
 amaierarik gabeko
 basamortua
 maitemindu egiten duen
 jolasa da.

Zure nostalgia
 egun ilunez beterik,
 gauzak ezkatzen
 dituzten horietako
 ekaitz mingarria,
 zure burmuina
 pentsamendu askoren
 entzule,
 atsekabetu egiten duen
 bihotz
 ezea da.

Zu zeu zara
 sentimendu askoren
 eragile,
 zu zeu zara
 samindu, poztu, haserretu
 egiten duen
 bihotz atsekabetua,
 zu zeu zara
 maitasunaren seinale.



kutxa

TOLOSAKO



UDALA